

Euskaraz, lotsa gabe!



Euskaraz lotsa gabe

iruner berezia

Zenbaki berezia DBH
2011ko martxo





ARGITARATZAILEA: TB S. L.
Salis hiribidea, 21. Irun.

KOORDINAZIOA eta MAKETAZIOA:
Ana Grijalba.

INPRIMATEGIA:
Antza

TIRADA:
1.060 ale.

LEGE GORDAILUA:
SS-230-94





A G U R R A

EUSKARAZ, LOTSAGABE
EUSKARAZ LOTSAGABE

Kaixo, gazteok:

Hemen gaude berriz ere elkarrekin, Euskararen Hilabetea dela eta, IRUNERO ale bereziko orrialdeetan murgilduta.

Urtea azkar pasa da, baina seguru nago denbora ondo aprobetxatu duzuela eta lanean jarraitu duzuela euskararen inguruan. Izan ere, aldizkari honek jaso dituen lanak ez dira eskolako "beste lan bat", baizik eta zuek bezalako herriko beste gazte askok egin duten lana ezagutzeko aukera ematen duen baliabidea eta, nola ez, komunikatzeko tresna bat.

Gainera, espero dut zuek ere (txikiak bezalaxe) iaz baino lotsagabeagoak izatea eta EUSKARAZ LOTSAGABE aritzea eskola ez den beste esparruetan. Azken finean, egin duzuen eta egiten duzuen lana egin ondoren, penagarria litzateke eskolako lau pareten artean gelditzea, ezta? Horregatik, hemendik animatu nahi zaituztet bide horretatik jarraitzera.

Ez dizuet agur esango aldeztatik zorionak eman gabe eta zuen ahalegina eta lana eskertu gabe. Beraz, zorionak eta eskerrik asko bihotz bihotzez, zuei eta, nola ez, zuekin lanean ari diren irakasleei.

Laster arte

Irunen, 2011ko martxoan

Fernando San Martín Gubía
Euskara Ordezkarria

A u r k i b i d e a

DUNBOA

Jaizkibelezik txangoa	8
Egunerokoa	14

EL PILAR

Txano borobila	5
Aisia Irunen	11

HIRUBIDE

Oiasso	9
Kirola	6

IRUNGO LA SALLE

Lepaluze itsusia	10
------------------	----

SAN VICENTE DE PAUL

Txistek	15
Gutunak	12

TOKI ALAI

Abentura zoragarria	7
Bertsoak	13



Txano biribil dotore bat nola egin irakatsiko dizuegu, pailazo baten antzera mozorrotu ahal izateko!

Lehen hezkuntzako ikasleekin probatu genuen eta guztiak txano polit batekin eta irribarre handiarekin atera ziren eskolatik.

Materialak:



- Kolorezko kartulinak
- Kola
- Guraizeak
- Errotulagailuak edo margoak

Nola egin:



1. Hasteko, 25 zm-ko eta zure burua inguratzeko luzera nahiko duen kartulina zati bat moztu. Kartulina hone-tan erdialderaino mozketak egin, marrazkian adierazten dugun bezala.

2. Ondoren, aurrez aurre dauden 2 tira erdialderantz tolestu, muturrak kolaz itsatsiz. Gero, prozesu berdina jarrai ezazu beste tira guztiekin .

3. Jarraian, txanoa beste kartulina baten gainean jarritz, arkatz batekin bere ingurua markatu eta kanpotik beste biribil bat marraz ezazu. Bi biribil hauek moztean donuts baten forma edukiko du zure kartulinak. Azkenik, txanoaren behealdean mozketak labur-laburrak egin itzazu eta donutsari itsatsi.

KIROLA

Kirola kontzeptu moduan definituta, jolas edo lehiaketa helburu duen ekintza da. Baina kirolak dituen puntu guztiei erreparatzen badiegu konturatuko gara ekintza hau ez dela ematen duen bezain erraza.

Jendeak kirol bat aukeratzen duenean, ez ditu kirol horrek dituen puntu guztiak aztertzen. Gehienetan kirol bat aukeratzekoan jendeak kirolarik ospetsuenetara jotzen du (futbola, tenisa, igeriketa, sasibaloia...) kirol hauek dituzten puntu guztiei kasurik egin gabe.

Kirol guztien barruan baloia jotzeari, baloia saskiratzeari, pilota bati ondo emateari arreta jartzeaz gain, nire ikuspuntutik garrantzi gehiago duten beste gauza batzuei erreparatu behar zaie. Hemen azalduko dizkizuet nire ikuspuntutik garrantzitsuagoak diren zenbait alderdi.

Nire iritziz norberarengan konfiantza izatea punturik inportanteena da, zuregan konfiantza baduzu zure gaitasunak argi ikusiko dira, inolako zalantzarik gabe. Zure baitan gai zarela pentsatzen baldin baduzu ia guztia egina daukazu, egiteko gai zarena bai, alajaina!

Kontzentrazioa ere oso garrantzitsua dela pentsatzen dut. Kirola egiten ari bazara, nire ustez, zentzu guztiekin ekin behar diozu egiten ari zarenari, kontzentrazioarik galdu gabe, ondo murgilduta egon behar duzu praktikatzen ari zaren kirolean.

Talde lana ere kontuan hartzeko beste alderdi bat da, talde batean jokatzeko baldin baduzu, zure taldekideak ondoan dituzula jakiteak segurtasun handia ematen dizu. Batek galtzen baldin badu, denek galtzen dute inolako errurik inori bota gabe.

Askok jendea kirola praktikatzen ikusten dutenean, gehienetan kritikatzeko hasten dira. Ze gaizki jokatzeko duen! Ze erraza den hori egitea eta horrek ez du egiten! Ze koldarra den hori, ez baita ausartzen "rebes" bat egitera...

Baina hauek guztiek ez dakite benetan zer den zelai baten barruan egotea, mahai batean egotea, ez dakite zer den partidua zure eskutan egotea... eta beste zenbait gauza, kirol leihaketatik parte hartzen dutenek bakarrik dakizkitenak. Nik badakizkit. Nik badakit zer den kirol batekin sufritzea, nik badakit zer den mahai batean egotea, baina batez ere, badakit zer den kirola egitean dena entregatzea eta benetan kirol hori maitatzea.



Orain dela zazpi bat urte, ez dut data oso ondo gogoratzen, amonaren etxean nengoan. Aitak egunkarian haurrentzat betizuk antolatutako festa bat zegoela ikusi zuen. Amonaren etxea Donostian dago, erdigunean, beraz hamar bat minututan iritsiko

ginen, asko jota. Eskailerak jaitsi eta betizurena zegoen plazarantz abiatu ginen. Iristean, pozez zirrarez nengoan. Gauza asko zeuden jolasteko, betizuko behiak ageri ziren berja batzuez inguratuta. Sartu eta koltxonetan saltoka, marrazten, txapak egiten... aritu nintzen. Aitak joateko keinu bat egin zidan eskuarekin, baina nik ez nuen joateko intenziorik, pozik nengoan bertan. Berriro ere egin zidan keinu hura, eta haserre aurpegia jarri zuen. Nik berriro ere kasu egin barik, koltxonetan jolasten. Azkenean barrura sartu eta besotik heldu ninduen kanpora ateratzeko. Ni negarrez hasi nintzen, lurrera begira, amonaren etxerako bidean. Jadanik kioskoan nengoan. Aita non zegoen begiratu eta ez nuen ikusten. Ni lasai, etxerako bidea banekien. Gainera aitarekin haserretu nintzen ez nuen bilatzeko gogorik. Bidean, eraikin, edo antzoki baten parean nengoela, zulo batean erori nintzen.

Baso batean erori nintzen. Arraro samarra zirudien, kale erdian zulo bat, baso baten gainean. Zuhaitzez inguratua nengoan, eta belarra, belaueraino iristen zitzaidan. Bat batean bi gizon gerturatzen ari zitzaizkidan, erdi aroko arropekin jantziak. Nik atzerantz egin nuen, beldurrez. Belarra mugitzen hasi zen, heurrek ere beldur edo harridura aurpegia jarri zuten. Gizon bat, garrasi egin eta lurrera erori zen. Ni korrika hasi nintzen. Zutik zegoen gizona ere. Beste garrasi bat entzun nuen, eta beste gizona ere erori zen. Ni bakarrik geratzen nintzen, niregana zetorren. Atzera begiratu gabe korrika jarraitu nuen. Zerbait txikia gainera etorri zitzaidan. Burua jiratu eta arratoi bat ikusi nuen, espata eta gorro batekin. Zer gauza arrarod! Hitz egiten hasi zen, ni amets bat zela pentsatu eta lasaiago geratu nintzen. Jatorra zen arratoi hura, egia esan. Aurrean, zaldi gorputza eta gizon burua zeukan "izaki" bat agertu zen. Eta berarekin batera gauza arraro horiez inguratuta nengoela ikusi nuen. Berehala ilundu zuen, eta berehala argitu. Oso amets arrarod zen.

Gerra bat prestatzen ari zirela entzun nuen, gizakien aurka, gaiztoak bai ziren. Gerra asteko zorian zegoen, eta argiak piztu ziren. Moztu! Esan zuen ahots batek. Basoa desagertu zen eta plato bat zela zirudien. Dena ulertzen nuen orain, filma baten rodajea zen. Igogailu batean sartu nintzen, gazte batekin batera, eta hasierako eraikinean geundela ikusi nuen. Berandu zen, aitaren haserrean pentsatu eta amonaren etxerantz joan nintzen ziztu bizian. Semaforoa gorri jarri zen. Bus geltokian eseri nintzen, aterpea zuelako. Berehala jarri zen berde, eta beste aldera igaro nintzen. Plaza batera iritsi nintzen. Oso ezaguna zen niretzat, bertan aitonaekin egoten nintzelako, zisneezi ogia botatzen, kiosko txikitxo batean sartzen eta bertan zegoen termometro batean zegoen zuloan harritxoak sartzen... Ze oroimenak. Aurrera jarraitu nuen, Rich denda pasa eta ezkererantz joan nintzen. Arropa denda atzean utzi, farmazia igaro eta amonaren etxeko portalera iritsi nintzen. Ez nintzen iristen 5. pisuko tinbrera, baina salto bat emanez lortu nuen. -Bai? Nor da?- Amaren ahotsa zen. -NI- esan nuen pozik, etxera bakarrik iristea lortu banuen. Eskailerak igotzen hasi nintzen, igogailuan igotzea beldurra ematen baitzidan. Nekatuta, baina azkenean 5. pisura heldu nintzen. Etxera sartu nintzen ama, Unax (nire anaia) eta amona zeuden, aita ez zen inon ageri. Amak telefonoz deitu eta laster iritsi zen. Iristean zer gertatu zitzaidan galdetu zidan. Nik dena kontatu nion. Nik espero baina normalago zegoen. Ez zirudien haserre.

Duela gutxi, zinemara joan nintzen lagunekin. Iragarki batzuen ondoren hasi zen filma. Niri gertatutako berdina agertzen zen. Nik lagunei kontatu nien baina ez zidaten kasurik egin. Ni, pertsonaia haiek ezagutu nituen, eta ez nekiena, ospetsuak zirela zen.

Suposatzen dut badakizula ze filma zen, eta zuk ere sinesten ez didazula, gauza arrarod baita.



Eskola Iraultzailearen 100. Urteurrenaren Zikloa
Ziurtagiria: 2019-2021

Jaizkibel menditik egindako txangoa

Jaizkibel mendi luze bat da, dena bat Hondarribitik hasi eta Pasaiaraino.

Errepide batek zeharkatzen du alderik alde eta Telebista emisorea bat dauka tontoretik gertu. Alderik politena, segur aski itsas ertza da, harearriak oso itxura berezia hartzen baitu olatuek astintzen duten lekuetan. Bere gandor luzean hainbat gune interesgarri aurki dezakegu: Pasaia aldetik igotzen den gandorreaan karlistek eraikitako hiru dorreak eta Hondarribi aldekoan Guadalupe ermita eta gotorlekua. Pasaia aldean, Puntak izeneko itsas muturrean eskalada eremu bat dago, nahiko berezia, harearriko hormetan gora, txapaz josia eta igoera bide ugarirekin.

Itsaslabarren eskuraezintasunari esker itsas hegazti kolonia garrantzitsuak finkatu ahal izan dira, baita hegazti harrapari eta sarraskijaleen habiak ere, hauek asko mehatxatuak daudenak. Jaizkibel babestuko duen korridore ekologiko bat sortzea proposatu dute, (Donostiatik Miarritzera doan babesgune bat sortzeko) "Ozeanak" eta biologoen elkartekoek.

Dunboako institututik 3 irakasle abiatu ziren Jaizkibelera txango bat egiteko.

Hona hemen beraiei egindako inkesta

Nondik eta zein ordutan atera zineten?

-Hondarribitik atera ginen, zortzi eta erdietan Guadalupetik hiru kilometrotara, Jaizkibel aldeara.

Eta zein ordutan heldu zineten ibilbidearen bukaerara?

-Hamabi eta erdietan heldu ginen ibilbidearen bukaerara, Remigio Mendiburen eskultura dagoen lekura. Lau ordu iraun zuen ibilbide osoak.

Zergatik erabaki zenuten Jaizkibelera joatea?

-Hain gertu izanda, leku ezezaguna delako, batez ere kostaldekoa, eta txoko ezezagun eta ikusgarri asko daudelako.

Irakurri dugunez, zenbait ibilbide daude

Jaizkibelera heltzeko. Zuek nondik abiatu zineten?

-Ibilbide asko daude bai, baina, guk egindakoa berezia da. Itsasbehera zegoenez, itsas mailaraino jaisteko aukera izan genuen.

Badakigu Jaizkibelen karlistek eraikitako hiru dorre daudela. Ikusi al zenituzten?

-Bai, baina, urrutitik.

Zer landare mota ikusi zenuten?

-Otea, pinuak, perretxikoren bat etab.

Ikusi zenutenetik, zein izan zen gehien gustatu zitzaizuen?

-Bobeda antzeko bat izan zen gehien gustatu zitzaiguna.

Horrelako beste txango bat egiteko asmoa duzue?

-Bai, Hondarribitik San Juanera. Guk etapa bat egin dugu eta beste biak egin nahi ditugu, Mendiburen eskulturatik Donibaneraino hain zuzen ere.

Gu prest gaude zuekin abiatzeko. Zer edo zer prestatuko duzue?

-Bai, kurtso bukaeran. Udaberri aldera; Hondarribitik Justizeraino.

Nolako eguraldia eduki zenuten?

-Eguraldi oso ona egin zigun, zoragarria.

Ondo pasatu al zenuten eguna?

-Bai, baina azken aldapa gogorra izan zen. Dena den pozik hartu genuen Guadalupen jan behar genituen txistorra pintxoetan pentsatuz. Helburu zehatz bat zenuten buruan txangoa antolatzerakoan?

Argazkiak atera genituen, hareharriak, haizeak eta itsasoak egindako higadura ikusi... eta batez ere menditik ibiltzeaz gozatzeko asmoa geneukan.

Haien erantzunak entzuteak mendira joateko grina sortu digu. Hurrengo txangoan parte hartuko dugunez gero, sekulako erreportaje grafikoa prestatuko dizuegu. Prestatu kamerak eta motxilak!



Oiasso

Oraindik ez da ezagutzen noiztik bizi diren Irungo lehenengo biztanleak.

Lehenengo idazkiak K.a. 29. urtetik K.o. 7. urtea bitartean idatzi ziren. Estrabonek bere liburuan Hispaniako herri batzuk deskribatzen zituen. Estrabonek kontatzen zuenez, Irungo herritarrak basati samarrak ziren eta lurrian egiten zuten lo. Testuan lehenengo aldiz azaltzen zen gure hiriaren izena, Oiasso.

Erromatarren konkista eta gero Oiasso, Easorekin (Donostiarekin) batera, erromatar inperioaren ozeano Atlantikoaren hiru portu garrantzitsuenetakoa izan zen.

Oiasso erromatarrentzat oso inportantea izan zen, bertan berun-meategiak ustiatu zituztelako: Aiako Harriak, Elatzeta...

Erromatarrek hainbat aztarna utzi digute. Lehenengo mendean Santa Elena nekropolia (hilerria) erabili zen. XX. mendean Higer lurmutarraren kostaldean txanpon eta objektu batzuk aurkitu ziren. Aztarna gehiago ere Junkal elizaren inguruan aurkitu ziren, hor baitzegoen portua erromatarren garaian. Aurkitu diren objektu gehienak Oiasso museoan ditugu ikusgai.

Gure herriaren izena Oiasso zen eta inguruko herriena (Irun, Hondarribia, Oiartzun eta Errenteriarena) Oiasson. Gainera badirudi Bidasoa ibaiaren izena Vía ad Oiasso-tik zetorrela (Oiassorako bidea).

Uste dugu lan honek gure hiriaren historia ezagutzen lagunduko dizuela.





Lepaluze itsusia

Behin lepaluze bat jaio zen. Bost anaia ziren baina bera desberdina zen. Bere anaiek eta gurasoek itsusia zela esaten zioten; diferentea zelako. Ez zuten maite. Familiako beste kideek azal horia zuten orban marroiekin, eta lepoa bi metrokoa. Gure lepaluzeak berriz, azala beltz ilun-iluna zuen eta orban moratuak. Lepaluze gaixoa oso triste zegoen etxean ez zutelako maite eta beste etxe batera joatea erabaki zuen.

Atea jo zuen aurkitu zuen lehenengo etxean eta txakurren familia batek ireki zion. Txakur aita atera zen eta lepaluzek bere istorioa kontatu zion. Hain itsusia zela ikustean bidali egin zuten. Aurkitu zuen bigarren etxea katuena familia batena zen. Oraingoan ere katu aita atera zen. Gure lepaluzeak bere istorioa kontatu zion hari ere eta katu aitak bertan geratzen utzi zion. Hala ere, bolada bat pasa ondoren bota egin zuten. Arrazoa? Ba...ITSUSIA ZELAKO! Gaixoa gure lepaluzeak! Inork ez zuen maite eta horregatik beti negarrez zebilen.

Lepalu, ordea, oso optimista zen eta hirugarren etxe batera joan zen maitasun bila. Txorien etxera iritsi zen. Lepaluzeak berriz bere historia kontatu zuen. Txoriek pena sentitu zuten eta utzi zioten bere etxean sartzen. Hemen ere bolada pasa eta gero kanporatu egin zuten. ITSUSI, ITSUSI! Esaten zioten.

Lepaluk oso hilabete txarrak pasa zituen. Tristura handia zuen gorputzean. Zer egin zuen orduan? Ileapaindegira joan zen eta bere "look" a aldatu zuen. Itsusia zen oraindik baina gutxienez garbi txura ematen zuen. Hori egin ondoren, oihanera itzuli zen eta bere lagunak hasi zituen. Han zeuden beste lepaluzeak. Lepaluk kontatu zien zer gertatu zitzaion eta beste lepaluzeez ulertu zuten. Beraiei ere antzeko zerbait gertatu omen zitzaion.

Azkenean, Lepalu oihanean geratu zen bere lagunekin eta handik aurrera inguruko lepaluzerik ederrena izan zen.





Aisia Irunen

Irunera etortzen bazara eta kirol bat egin nahi baduzu, hemen dituzu batzuk: Eskubaloia, piraguismoa, igeriketa eta saskibaloia dira ezagunenak gazteen artean.



Irunen bi eskubaloi talde ditugu: Bidasoa eta Irungo gaztea. 12-13 urterekin has zaitezke jokatzen.

Piraguismoa Irungo Bidasoa ibaian praktikatzen



da. Hamabi urtetik gorakoek praktika dezakete kirol hau urte osoan zehar eta udan Santiagotarra klubak hiru modalitate ezberdin eskaintzen ditu: ur-biziak, arrauna eta pista.

Saskibaloian jokatzeko ez dago aukera handirik. Eskola-kirola uztean, Errobide talde mistoa dago.



Hala ere, zure aisian zer egin ez badakizu eta kirolzale amorratua ez bazara beti ere kultura arloan badaogo zer egin, hala nola, Junkal eliza bisitatu, Irunen dauden beste aztarna historiko askoren artean Oiasso museoak eskaintzen duen erromatar giroan murgildu edota Amaia kultur zentron hainbat dantza, antzerki edota orkestra ezberdinen emanaldiak ikusi

Hala ere, egiterik badagoen arren, Irungo gazteok **ekintza gehiago** nahiko genituzke. Adibidez, Ficoban dauden pabeloiei erabilera gehiago ematea ekintza ezberdinak eginaz hala nola, larunbat arratsaldetan



musika jarri gazteen arteko giroa bultzatu eta jendea ezagutzeko.

Beste aukera bat Irungo jaietan gazteentzako jarduerari gehiago antolatzea izango litzateke, edota urte zaharrearantz disko festa bat antolatzea. Horretarako bozgorailu batzuk eta giroa besterik ez da behar.



Azkenik, **ingurugiroarekiko** konprometzua duenarentzat Skate parkea dugu. Irungo gazteriak hainbat urtetan eskatu eta azkenik lortu zuena. Bertan Skatean ibiltzeaz gain baduzu haize freskoa arnastu eta inguruko zelai berdeetan egoterik. Hala ere, inguru honetan eta besteetan skatean ez baina bizikletaz ibiltzeko zirkuitoak ondo egongo liriateke.

Gutunak

Alkate jauna:

Irungo gizarte elkarte bat gara, IGE, eta gutun hau bidaltzen dizugu Hondarribia kaleko obren lardaskerien kontrako iritzia emateko.

Ezer baino lehen, zebrabideak oso gaizki dardela esan behar dugu. Zebrabideak behin-betikoak izan beharrean, egunero edo ia egunero lekuz aldatzen ari dira, eta hori arazo bat da auzokideentzat.

Garrantzi handia du esatea soinu asko egiten dutela eta auzokideentzat eguneroko gauza berdina dela, hori dela eta nekagarria egiten da. Soinuak neke fisiko eta psikologikoak eragiten ditu, horrela ezin da bizi. Auzokideek keza ugari bidali dizkizute, baina oraindik ez duzue ezer egin arazo hauek konpontzeko.

Ildo beretik, Hondarribia kaleko dendek desadostasun handia dute obra hauekin. Gainera bideo-klub bat itxi behar izan dute, haren salmentak asko jaitsi direlako obra hauen ondorioz.

Aipatu bezala, obra hauek arazo asko ekarri

dituzte, baina arazo larriena trafikoarena da. Aurreko asteetan pilaketak egon dira eta honekin zarata gehiago. Kotxeen txistuak entzuten ziren eta gauzak larriagotu egin dira. Zorionez istripuetan ez da inor hil, baina azkenean, obrek horrela jarraitzen badute inork nahi ez dituen ondorioak gerta daitezke.

Badakigu obrak egin behar direla, eta soinua saihestezina dela, baina gauzak hobeto eta lardaskeria gutxiagorekin egin daitezke eta horrela gauzak baretuko lirateke auzokideen artean. Hori ikusi eta gero, auzokideak adierazpen bat antolatzen hasi ziren, baina ez zuen ezertarako balio izan. Haiek beraien egoera azaldu zuten Irungo Udalaren aurrean. Eta erantzunik gabe guregana jo zuten laguntza eske.

Horregatik guk gutun hau idatzi nahi genuen.

Gure eskaria kontuan hartzea espero dugu.

Alejandro de la Calle

Miriam Egües (IGE elkartearen izenean)

Joseba Salaverria eta Ana Junkal Zabal gara eta lerro hauen bidez gure ikastetxeko zuzendariarengana jotzen dugu, gure ikasketa bidaia oso motza iruditzen zaigulako (bi egun soilik). Orain dela aste bat, gure tutoreak esan zigun bi egun Port Aventura pasako genituela ikasketak bidai bezala. Hasieran gu pozik geunden, baina gero oso egun gutxi zirela ohartu ginen, eta gutun honen bidez ikasketa bidaiko egunak luzatu nahi ditugu.

Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu eskola honetan urte asko daramatzagula ikasten eta laguntzen. Horrenbestez, eskolako parte izatea lortu dugu. Urtero momentu onak izan ditugu, baita arazoak ere, baina beti aurrera jarraitu dugu. Auzoan, hemendik joango gara eta oso gutxitan ikusiko dugu elkar, guk gure bidea jarraitu behar baitugu. Beraz, ikasketa bidaian egun gehiago egotea merezi dugula uste dugu. Horrez gain, egun gehiago izango bagenitu leku urrunagoetara joatea edo bertan denbora gehiago egotea lortuko genuke. Izan ere, egun

bakoitzaren zati handi bat autobusean egongo baikara eta horrek suposatzen du ezer egiteko denborarik edukiko ez dugula. Gainera, Port Aventura ilerak oso luzeak dira eta ezingo dugu ia ezertan ibili, eta horretarako hobe da ez joatea, diru asko balio baitu hain denbora gutxi egoteko.

Badakigu egun gehiago egoteko diru gehiago behar dugula. Baina guk dirua lor dezakegu zenbait janari postu antolatuz, kamisetak salduz, eskolako zozketa eginez edo futbol txapelketak antolatuz kurtsuan zehar.

Azkenik, kontuan hartu dugu eskolako klase gehiago galduko ditugula, baina 2 edo 3 egun izango dira soilik, ez dugu hainbeste klaserik galduko. 10 urte daramatzagu eskolan, eta 2 edo 3 egun gehiago ez etortzeagatik ez da ezer gertatuko.

Zure berri laster izango dugulakoan, agur bero bat.

Joseba Salaverria

Ana Junkal Zabal



Barça Vs Madrid

-1-

Etxean goxo-goxo
kalean berriz hotz
partida ikusteko
sekulako gogoz
hasiera batetik
talde bat hanka motz
ez da harritzekoa
Barçak sartzea bost

-2-

Zelairatu aurretik
hitz aspertu asko
Mouriño (e)ta Ronaldo
gehiegi akaso
jokatu behar baina
egia ikusteko
hortxe bertan hartu zuten
hainbat muturreko

-3-

Batzuk ziren herrenak
besteak arinak
zurizkoak ankerrak
Barçakoak finak
garbi gelditu ziren
nahi eta ezinak
Madrilek hitz handiak
blaugranak mozkinak

-4-

Atze-atzetik hasita
zelai erdiraino
Han berriz jaso eta
aurre-aurreraino
aurkariak lurrean
baloia barruraino
halakoan hobe ikusle
jokalari baino


-5-

Gehienak pozaren pozez
han ikusitakoaz
Barçako zaleak
parrez eta algaraz
Madrilgoak berriz
bihotza tristuraz
hurrengo bat arte bada
gu orain bagoaz



TOKI-ALAI BETA

Egunerokoa



Azaroak 18.

Ezin dut sinetsi gaur gertatu zaidana. Liburu bat galdua nuen eta, horrexegatik, logela hankaz gora utzi dut. Bat-batean 16 urte nitueneko EGUNEROKOA aurkitu dut. Aurkitzean poza sentitu nuen eta oroitzapenek uhanditu ninduten. Orduan egunerokoa ireki eta irakurtzen hasi nintzen. Amatxo maitea! Nola aldatu naizen azken 10 urteetan!. Lehen oso lotsatia nintzen, orain, berriz, ausartzen naiz edozer egiten, lotsarik sentitu gabe. Horrez gainera, orain ezkontuta nago nire betiko neskarekin, lehen ez nobiarik, ez ezer.

Asko, luze gogoratzen naiz momentu haietaz, biziki, eta, horregatik, atzo gertatu balira bezala, sentitzen naiz: Mikel, poeta-bragetarena, Ainara, The Secret Diary, eta beste gauza gehiago. Inoiz, sekulan ez ditut ahaztuko bizi nituen momentu barregarriak, ezta askotan sentitzen nuen lotsa ere. Egunerokoa irakurri ondoren, barrezka hasi nintzen. Benetan, ez ditut ahaztuko egun haiek, nirekin daude orainean.

*Jonathan Gomez 4. D.
Dunboa BHI*

TXISTEAK

- Ala! Ala! Kantarantz dago... = Ingeles ala etxak?
 - Zingakiz galduta en ditekizu hosi seme?
 - Amara bezalako eraman dutelako!
 - Oskuan lagunak dituz.



Behar baldin bi seme oso bikerakak dituz, baina anaxetan sartuz
 zuzen. Egun batean elkar eraman zituzten, apokali ea ferbalt
 egiz abas zuen Alusteta. Jaten'u trillona heretik eraman eta
 o'lel' basean esen' zuzen.

- Non da Jainkoa? - Esan zuen apokali anats oso geroberdun.
 Halaek ez zuen erantzun.
 - Jainkoa non dagoen galdetu ditekiz!! - Esan zion geroberdun
 Halaek ezin egiz eta anaxari hau esaten dituz.
 - Oh one! Jainkoa desagertu egiz da eta apokali gait ditekiz-
 gaita usie du!



